



ALEGIAKO ORRIE

ALEGIAKO ORRIE - 2018ko ekaina // Argitaratzailea: Alegiako Udala

Erredakzioa eta diseinua: Goioa // Inprimaketa: Garaiko

KULTURA

UDABERRIKO PROGRAMA BETE-BETEAN

Bete-beteko asteak ari dira izaten azken hauek Alegian kultur arloan. Udaberriko egitarauko ekitaldi ugari egin dira azken asteetan eta ekainak ere hainbat utziko ditu.

Pasa diren ekitaldien artean, urrutira joan gabe, eskolako festa egin zen iragan larunbatean. Ohi bezala, oporrak hartzetik gertu diren ikasleek emanaldi ezberdinak egin zituzten guraso eta familiakoen gozagarri.

Maiatzeko azken igandean berriz, Langaurre Eguna ospatu zen. Eguraldiak ez zuen askorik lagundu eta antolakuntzak bazkaria bertan behera utzi behar izan zuen aurreko egunetan. Dena den, aurrei-

kusita zeuden hainbat ekitaldi egiteko moduan izan ziren.

Horrela, goizean Langaurrera oinez igo zen hogeita hamabost bat lagunek osaturiko taldea eta bertan hamaiketako egiteko aukera izan zuten.

Ondoren, Aranzadi Zientzia Elkarteko kideen eskutik txori habia kutxak egiten ikasteko tailerra izan zen. Adin guztietako herritarrek hartu zuten parte eta hamar habia kutxa egin zituzten. Esperientzia oso polita izan zuten.

Bezperan, Intxurre taldeak denboraldi amaierako festa egin zuten. Aurten gainera hartxintzarrezko zelaia- ren agurra ere izan da baina horri buruzko

informazio gehiago hirugarren orrialdean duzu.

Goizean egungo jokalarien eta jokalaria izandakoen arteko partida bat jokatu zen eta eguerdian zahagiardoa izan zen. Ohi bezala, talde ezberdinetako kideen artean oroigarriak banatu ziren.

Maiatzaren 6an, bes-tetik, Azoka Ekologikoa egin zen. Eguraldia lagun, ugari izan ziren Beloztegiko baratze parkean jarritako postuak bisitatu zituzten pertsonak.

Bestelakoan, Mattin Zeberioaren "Zortzi Yukon" dokumentalaren emanaldia eta Iker Lauroba&Zentinelak taldearen kontzertua ere izan dira Elizpe zinean.

AURRERA BEGIRAKOA

Geratzen denari errepertuz, datorren asteburuan ez da ekitaldirik faltako. Ostiralean, hilak 8, Sutarri dantza taldeak ikasturte amaierako jaialdia eskainiko du Elorri pilotalekuan 22:00etatik aurrera eta hurrengo egunean, ekainak 9, Herria Kantuan jaialdiaren hirugarren ekitaldia izango da ordu berean plazan. Kantua, musika, dantza... Dene-tik izango duen jaialdia izango da. Adin ezberdineko herritar ugari oholtzan ikusteko aukera izango da. Musikaren munduan lehen urratsak ematen ari diren talde gazteak, jada urteak daramatzatenak, bakarka, taldeka...

Adin guztietako

herritarrak izango dira oholtzan eta estilo zein jatorri ezberdineko abestiak entzuteko aukera izango da formatu oso ezberdinetan.

Ekainaren 12an, 13an eta 14an "Artearekin jolasten" tailer artistikoak egingo dira 16:00etatik 18:00etara eskolako patioan. Egun bakoitzean adin talde ezberdin bateko haurrei eta beraien gurasoei zuzendutako ekintzak izango dira. Pintura, margoak eta collageak izango dituzte ardatz. Tailer horiek Iturri Zahar Guraso Elkartean antolatuta ditu.

Egitarauari amaiera emateko, ekainaren 23an, larunbata, San Juan sua piztuko da 21:00etan plazan.



HIRIGINTZA

LARRAITZ MENDEBALDEKO LANAK AMAITUTA

2017ko uztailean hasi ziren Larraitz auzoko mendebaldea eraberritzeko eta hiritartzeko lanak. Hasieran urtebeteko epea aurreikusi zen lanak gauzatzeko, baina azkenerako, hamar hilabeteko epean amaitu dira. Instalakuntza eta azpiegitura guztiak era-

berritu dira, irisgarritasun aldetik ere zeuden gabeziak konpondu dira eta ibilgailuen norantzak eta aparkalekuak berrantolatu eta egituratu dira. Udalak esker-rak eman nahi dizkie herritarrei lanek iraun bitartean izandako uler-menagatik.



Gainerako herritarrekiko begiruneagatik besterik ez bada ere, herrigunean **TXAKURRAK LOTUTA DERRIGO-RREZKOA** delagogarazten zaie txakurren jabeek.

Txakurren **kakak txakurren jabeek beraiek jaso behar dituzte**, eta **errefusa** jasotzen den edukiontzira bota.

Txakur arriskutsuei **bozala** jarri behar zaie. Elkarbizitzaren alde hartu beharreko neurriak dira.

La versión en castellano de Alegiako Orrie está **disponible en el Ayuntamiento** para todos aquellos ciudadanos que deseen consultarla.

Los vecinos que quieran **recibir en su domicilio la versión en**

castellano de Alegiako Orrie, tendrán la opción de **solicitarla en el Ayuntamiento** facilitando los siguientes datos: nombre, apellidos y dirección. El Ayuntamiento se encargará de mandar la revista a los domicilios.

FUTBOL ZELAIA ERABERRITZEA

Futbol denboraldia amaituta, hartxintzarrezko Elorri futbol zelaia eraberritzeko lanak gauzatuko dira datozen asteetan. Gipuzkoako Foru Aldundiak horrelako lanak gauza-

tzeko ematen dituen diru laguntzetako bat baliatuko du Udalak orain arte hartxintzarrezko gainazala izan duen futbol zelaiaren belar artifiziala jartzeko. Gaur egun Gipuzkoan

geratzen zen hartxintzarrezko zelai bakarra da Elorri eta Intxurre taldeko jokalariek gainazal berriko zelaiaren jokatu dituzte datorren denboralditik aurrera etxeko partidak.

Negu partean egin zen lanak esleitzeko prozesua eta ALVAC, S.A. enpresari eman zitzaion lanak gauzatzeko ardura. Hasiera batean neguan gauzatzekoak ziren lanak baina denboraldia amaitutakoan egitea zentzuzkoagoa zela iritzita, orain gauzatu dira.

Gauzatu diren lanen artean nagusia, belar artifiziala jartzea izango da, baina beste azpiegitura batzuk sartzeko ere aprobeztatu da. Hala nola, ureztatze sistema bat ezarriko da eta argiterian ere alda-

ketak egingo dira. Orain arteko zutabeak mantenduko dira eta beste lau gehiago jarriko dira. Horrez gain, LED teknologiako lanparak instalatuko dira, modu horretan energia aurrezpena lortuz.

Gauzak horrela, datozen asteetan gauzatu diren lan horiek kultur etxe inguruan hainbat eragozpen sortarazi ditzakete ibilgailuentzat. Kultur etxe inguruko aparkalekuak ez dira erabilgarri egongo lanek irauten duten bitartean. Herritarrei ulermena izatea eskatzen zaie.



GIZARTEA

SEXU ERASOEN AURKAKO PROTOKOLOA

Alegiako Udala sexu erasoen aurkako protokolo bat prestatzen ari da. Protokolo horren helburua sexu erasoak ekiditea da. Horretarako, prebentzioa da oinarri nagusietako bat. Edozein motako erasoaren bat ekiditeko prebentzioa oso tresna erabilgarria da. Alde batetik, kontzientziazio funtzioa betetzen duelako.

Belaunaldi berri zein helduei formakuntza emanaz, esaterako. Bestetik, erasoaren bat gertatu litekeen une edo eremuren bat identifikatzen ere laguntzen du prebentzioak, hainbat zantzu hautematea ahalbidetuz.

Horrekin batera, erasoaren bat gertatuko balitz, erantzun koordinatu bat emateko prest

izatea da protokoloaren beste helburuetako bat. Lehen uneko erantzuna koordinatua izatea, ondorengo ekintzak modu koordinatuan gauzatzea eta beste hainbat puntu biltzen dira helburu horretan.

Protokolo hori garatu ahal izateko Udalak herritar zein herriko talde, elkarte eta eragileen parte hartzea ezinbeste-

kotzat jotzen du. Bate-tik, prebentzioa ahalik eta eremu gehienetara hedatzea garrantzia duelako eta bestetik, erasoaren bat gertatuko balitz, eragile guztiak koordinatuta egotea ere ezinbestekoa delako erantzun egoki bat emateko. Adibidez, taberna batean erasoaren bate maten bada, tabernariak nola jokatu zehaztuta

izatea.

Gauzak horrela, **protokoloa garatzeko bi saio ireki egingo dira kultur etxean. Ekainaren 12an eta 19an, astearteak, 18:00etan** izango dira saio horiek. Kattalin Miner izango da saioak gidatuko dituen eta herritarrei zein talde, elkarte eta eragileei bertan parte hartzeko deialdia egiten zaie.

SAN JUAN KALEKO PIBOTEEN FUNTZIONAMENDUA

- San Juan kalean ibilgailuen joan-etorria mugatzen duen pibote sistemaren funtzionamendua egokiena ez denaren jakitun da Udala.
- Funtzionamendu desegoki horrek erabiltzaileei sortarazten dizkien eragozpenengatik barkamena eskatu nahi du Udalak.
- Sistemaren funtzionamendu egokia bermatzeko helburuz, Udala teknikariek lanean ari da arazoaren jatorria identifikatu eta ahalik eta azkarren konponbidea emateko helburuarekin.
- Erabiltzaileei, semaforoari begiratzeaz gain, ispilutik begiratu behar dela gogorarazten zaie, pibotea modu egokian jaitsi dela ziurtatzeko.
- Aldi berean, San Juan kalean kotxeak aparkatzea debekatuta dagoela gogorazi nahi da.

GIZARTE ZERBITZUAK

HOBKUNTZAK ETXETZ ETXETZ ZERBITZUAN

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua asistentzia eta prebentzio zerbitzu bat da, erabiltzaileei ahal bezain luzaro norberaren etxean bizitzen jarraitzeko laguntza ematean datzana; horretarako, etxeko laguntza edo/eta laguntza pertsonala eskaintzen zaie, etxean moldatzeko eta beren komunitatean txertatzeko, bakartzea saihestuz.

Egitasmo horrek hainbat helburu ditu. Batetik, autonomia galarari aurrea hartzea, autonomiari eustea edo/eta autonomia galera konpentsatzea. Horretarako, laguntza partziala edo/eta erabatekoa emango da norberaren zaintzarako eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko edo/eta eguneroko bizitzako jarduera instrumentaletarako.

Beste helburuetako batzuk erabiltzaileen segurtasun sentipena indartzea eta erabiltzaileak beren komunitatean integra daitezen bultzatzea eta bakartze

edo/eta bazterketa egoerak saihestea dira. Azkenik, norberaren etxean ahalik eta luzaroen eta bizi kalitate egokiarekin bizi daitezten ahalbidetzea, ahal den heinean; horrela, atzeratu edo saihestu egingo da ostatu zerbitzuetan edo egoitzetan sartu beharra.

Zerbitzuak eskaintzen dituen prestazioen artean informazioa ematea, etxeko laguntza, laguntza pertsonala eta gizarte laguntza aipatu behar dira. Erabiltzaileei beren eskubideei eta zerbitzuari buruzko informazio egokia eta nahikoa eskuratzeko aukera eman behar zaie, behar den denboraz eta behar den moduan. Etxeko laguntza erabiltzaileei eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak egiteko laguntza partziala edo osoa eskaintzen dien prestazioa da.

Laguntza hori bereziki dagokie elikadurari, jantziei eta erabiltzaileak bizi den etxeko instalazioen mantentzen gar-

biketari, ongi antolatzen laguntzeko; prestazio honetan sartzen da, halaber, hala dagokionean, jarduera horiek gauzatzeko beharrezko trebetasunen lanketa. Laguntza pertsonala erabiltzaileei honako jarduera hauek egiteko laguntza partziala edo osoa eskaintzen dien prestazioa da.

Batetik, zaintza pertsonalarekin loturiko eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak, bereziki, ohetik altxatzea eta oheratzea, norberaren garbitasuna, batetik bestera joatea, jatea edo oinarrizko beste funtzio batzuk.

Bestetik, ingurunearekiko lotura ahalbidetzen duten jarduera instrumentalak, bereziki, komunikaziokoak (telefonoa erabiltzea, gutunak idaztea...) eta familiarengana eta komunitatearengana iristeko beharrezkoak. Hemen sartzen da, hala dagokionean, jarduera horiek gauzatzeko beharrezko trebetasunen lanketa.

Hirugarrenik, osasu-

narekin loturikoak: medikuak agindutako botikak erostea, kontrolatzea eta behar bezala hartzen diren gainbegiratzea. Azkenik, gizarte laguntza edo akonpainen zerbitzua egongo litzateke.

Ondoko egoerak bizi dituzten pertsonak erabili dezakete zerbitzu hau. Beren kasa moldatzeko zailtasunak direla medio, eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak edo/eta jarduera instrumentalak gauzatzeko laguntza behar duten pertsonak; familiak zaindu ezin dituzten edo behar duten zaintza eta arreta eman ezin dieten adingabeak; zama astunegia, harreman gatazkatsuak, gizarte egoera egongaitzak edo/eta gaixotasun fisiko edo/eta psikikoen ondoriozko arazoak dituzten familiak edo pertsonak, eguneroko bizitzako jardueretarako laguntza partziala edo erabatekoa behar dutenak eta azkenik, aldi bateko gaixotasun edo gaixotasun terminal batek jotako

pertsonak, gaixotasunaren ondorioz eguneroko bizitzako jardueretarako beste norbaiten laguntza behar dutenak.

Zerbitzuaz baliatu ahal izateko ezinbestekoa da Alegian erroldatuta egotea eta zerbitzuaz baliatu nahi den bitartean hala jarraitzea. Eskaerak egin nahi dutenek Udaleko gizarte zerbitzuetara jo beharko dute, udaletxeko eraikinean, astearte, asteazken edo ostegunetan 9:00etatik 13:00era edo bestela, 943 65 47 68 telefono zenbakira deitu beharko dute.

Hemendik aurrera zerbitzu honetan hainbat aldaketa emango dira Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Alegiako Udalak sinatu duten hitzarmen bati esker. Erabiltzaileek hainbat abantaila izango dituzte hitzarmen berri honi esker. Alegiako Udalaren ildo nagusietako bat dira gizarte politikak eta hitzarmen horrekintzuz horretan lanean jarraitzeko duen konpromisoa berretsi du.

FORU ALDUNDIAREN ETA UDALAREN ARTEKO HITZARMENAK DAKARTZAN HOBKUNTZAK

- Zerbitzuaren erabiltzaileek gehienez orduko 15 euroko ekarpena egingo dute orduko, lan egunetan (prezio publikoa).
- Arreta egutegia urteko 365 egunetara zabaltzea, kasu jakin batzuetan bakarrik, bereziki familiarik ez dagoenean.
- Gehieneko ordu intentsitatea 4 orduraino igotzea, denboraldi baterako kasua denean.
- Premiazko sarrera bide bat ezartzea (larrialdietako kasuak).
- Zerbitzuaren barne bestelako modalitateak ezartzea eta estaldura adineko pertsonak ez diren kolektiboek zabaltzea.